

LUZARO ESTABLECIMIENTO FINANCIERO DE CRÉDITO, S.A.

Sozietatearen izena

Luzaro Establecimiento Financiero de Crédito, S.A.

IFK

A48050728

Izaera

Sozietate anonimoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Sozietatea 1968ko urtarrilean emandako eskritura publikoaren bidez eratu zen, «Atlántica de Crédito y Financiación, S.A. (ADEFISA)» izenarekin.

1992ko ekainean, sozietatearen izena aldatzea erabaki zuten, «Luzaro Entidad de Financiación, S.A.» izena hartuta.

Azkenik, 1996ko uztailaren 29an, Akziodunen Batzorde Orokor Unibertsalak sozietatea «Krediturako Finantza Establezimendu» bihurtzea adostu zuen, egungo izena hartuta. Transformazio hori eskritura publiko gisa aurkeztu zen 1996ko irailaren 13an, eta Krediturako Finantza Establezimenduen Erregistroan erregistratu zuten 1996ko azaroaren 12an (8.342 zenbakiarekin).

EAEko Administrazio Orokorren partaidetza bere kapital sozialean [Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioari «Luzaro, S.A. Entidad de Financiación» sozietatean parte hartzeko baimena ematen dion azaroaren 3ko 302/1992 DEKRETUAREN](#) bidez onartu zen.

Sail-atxikipena

Ogasun eta Finantza Saila.

EJSN

6492 Beste kreditu-jarduera batzuk.

Sozietatearen helburua

Erakundearen xedea enpresa txiki eta ertainen promozio, sustapen eta kapitalizaziorako epe luzerako partaidetzako maileguak ematean datza; eta, oro har, enpresa horien sorkuntza, garapena eta finantzaketa babestera eta sustatzera zuzendutako beste zernahi jarduketa eta mailegu ematean.

Sailkapena kontabilitate nazionalean


Finantza-erakundeak.

Kapital soziala

4.087 milako €

Kapital sozialaren osaera

Kutxabank, S.A.	% 47,06
EAEko Administrazio Orokorra	% 17,65
Laboral Kutxa	% 14,26
Banco Sabadell	% 9,26
Bankoa	% 7,06
Empresa Nacional de Innovación, S.A. (Administrazio Zentrala)	% 4,71



2013ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	312.572 milako €
Ondare garbia	17.681 milako €
Negozio kopuruen zenbateko garbia*	5.769 milako €
Batez besteko langile-kopurua	5

* *Asimilatutako interesak eta etekinak, jasotako komisioak eta bestelako ustiapen-produktuak*

Sozietatearen helbidea

Askatasunaren hiribidea 10, 7. sol. - 20004 Donostia (Gipuzkoa).

Webgunea

www.luzaro.es